

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak, Afrik'hope GKEaren eskutik, ehun ordenagailu inguru bidaliko ditu Kamerunera.

2012/05/11

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak 90 ordenagailu eman ditu dohaintzan, Afrik'hope GKEak Kamerunera eramateko. Lankidetzaz hitzarmena sinatu ostean, erakunde biek abian jarritako lehen ekimena da eta Mondragon Unibertsitateak GKEarekin duen lankidetzaz proiektuaren baitan dago kokaturik. Ekimen horren bitartez, gaiak bilduko dira Afrikako herrialde horretara bidaltzeko. Gaur, konpromisoa berretsi egin da, 90 ordenagailu emanez. Ekitaldian honako hauek parte hartu dute: Mondragon Unibertsitateko Bidasoako kanpuseko dekanorde Luxio Ugartek, Afrik'hope GKEko lehendakari Williams Koumek eta Mondragon Unibertsitateko ikasleen MUgi Hadi elkarteko ordezkari Borja Infantek eta Igor Fernandezek.

Lankidetzaz horren helburu nagusia da Doualako (Kamerungo) sortze berriko ikastetxean eskainiko diren prestakuntza-ikastaroak emateko premiazko gaiak nahiz beharrezkoak bidaltzea. Ikastetxe horretan hainbat prestakuntza-ziklo emango dira, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen lanbide bat ikasten laguntzeko. Horrela, horien bizitza-kalitatea hobetzea eta lan-etorkizuna baldintza hobetan garatzea nahi da. Ikastetxean emango diren zikloak honako hauek dira: informatika, ile-apainketa, elektronikak, mekanika, jostakuntza, nekazaritza eta abeltzaintza. Prestakuntza-zikloez gain, gaztelarako ikastaroak ere eskainiko dira.

Mondragon Unibertsitateak emandako ordenagailuen lehen sorta horren ostean, jostakuntzako eta sukaldaritza-ikastaroak emateko beharrezko gaiak, testu-liburuak, gaztelarazko irakurgaiak eta arropak bidaliko dira gizarte-egoera ahulenerako landa-biztanleentzat.

Gaiak jasotzeko lehen fasea abian da, eta maiatza eta ekaina bitartean luzatuko da. Dohaintzan eman nahi diren gaiak honako puntu hauetan jasoko dira: Irungo Auzokideen Elkartearen, Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako kanpusean (Ducoreau Jauregian) eta hainbat ikastolatan.

Proiektuan Ikastola Ekintza, Ediciones Saldaña, La Bacaladera eta Oiaso 2000 auzokideen elkarrekin ere hartzen dute parte.

Antolatzaileak

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatea, MUgi Hadi elkartearen bitartez, dago ekimen solidario horren atzean. Elkarte horrek Mondragon Unibertsitatea Bidasoaldean integratzea du helburu, ikasleek unibertsitateko bizitzan nahiz Bidasoa-Txingusi Eskualdeko kultura-, kirol- eta aisialdi-jardueretan parte hartzea sustatuz. Espainiako afrikar diasporak bultzaturiko ekimena da Afrik'hope GKEa, Saharaz Azpiko Afrikako herrialdeen garapen iraunkorra sustatzera bideraturikoa. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, Saharaz Azpiko Afrikako hainbat herrialdeetako gizarte-egoera ahulenerako biztanleen oinarrizko beharrak (hezkuntza, prestakuntza, osasuna, elikadura, etxebizitza, ura eta saneamendua, etab.) betetzeko horiekin lanean diharduten pertsonen osatua.

